

Haur Hezkuntza

gaur egungo legedian

Kalitatezko hezkuntza denentzat

Urtarrilaren 20ko 12/2009 Dekretuak, Haur Hezkuntzako curriculuma zehazten duena eta EAEn ikaspenak ezartzen dituenak, adierazten du: Haur Hezkuntzako etapak berezko identitatea duela, eta aipatzen da etapa horretako curriculumaren helburua pertsonaren garapen integrala eta harmonikoa lortzea dela, alderdi fisikoan, motorean, emozionalean, afektiboan, sozialean eta kognitiboan.

Eta horretan, beste edozeinetan baino gehiago, garapena eta ikaskuntza prozesu dinamikoak dira, eta ingurunearekiko elkarrekintzaren ondorioz gertatzen dira. Gainera, garapen pertsonalaren eta sozialaren oinarriak finkatzen dira, eta zenbait ikaskuntza integratzen dira, nahitaezko oinarriak baitira ikasle guztientzako geroko **gaitasunak** garatzeko.

Haur bakoitzak bere erritmoa du. Hori dela eta, haur bakoitzaren afektibitateak, ezaugarriak, beharrak, interesak eta estilo kognitiboak eragina izan behar dute etapa honetako hezkuntza jardunean. Prozesu horretan, oso garrantzitsua da **familiek parte hartzea eta laguntzea**.

Edukien antolaketa

Haurren esperientziaren eta garapenaren hiru arlo edo esparruren inguruan antolatzen dira edukiak, eta ikasleentzat interesgarriak eta esanguratsuak diren jardueren bidez landu behar dira. Funtsezkoa da lan dinamikak maitasunezko eta konfiantzazko giro batean garatzea, haurren autoestimua eta gizarte integrazioa sustatzeko.

Haur Hezkuntzako hiru arloak jarduera eremutat hartu behar dira, jarrerak, prozedurak eta kontzeptuak ikasteko gunetzat, haurrak hobeto gara daitezen eta mundura hurbil daitezen, esanahiak emanez eta parte hartze eraginkorra erraztuz.

1. arloa: Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala

Arlo honek barne hartzen du **norberaren identitatea** eta heldutasun emozionala **pixkanaka eratzea**. Etapa honetan, haurren esperientziek lagungarriak izan behar dute gorputza osorik eta zatika ezagutzeko, pertzepziozko eta mugimenduzko gaitasunak lantzeko,

Urtarrilaren 20ko 12/2009 Dekretuan hiru printzipio hauek mantentzen dira:

- **Herritar guztiei kalitateko hezkuntza** ematea, hezkuntza sistemak horretarako dituen mailetan.
- **Elkarren arteko ahalegina** egitea. Ikasleek, familiarek, irakasleek, ikastetxeek eta hezkuntza administrazioek parte hartu behar dute; azken batean, gizarte osoak parte hartu behar du, kalitatea eta ekitatea bateratzeko helburua lortzeko.
- EAEko hezkuntza sistemaren jardunak egokitzea, Europar Batasunarekin **batera dituen helburuak** lortzeko.

sumatzen dituzten sententzioak identifikatzeko, haiekin gozatzeko eta gorputzak gauzak adierazteko dituen aukerez baliatzeko. Haurrak bere ezaugarriak eta ikaskideenak hauteman behar ditu, oinarrizko baldintza baita bere garapenerako eta jarrera ez-diskriminatzaileak eskuratzeko.

Halaber, **afektibitatearen garapenari** erreparatuko zaio, haurren nortasunaren funtsezko dimentsioa den aldetik; horretarako, emozio eta sentimenduez jabetzea, haiek adieraztea eta pixkanaka kontrolatzea sustatuko da. Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala bultzatzeko, jolasa oso jarduera egokia da, emozioak eta pentsamendua integratzen baititu eta garapen soziala errazten baitu.

Horretaz gain, oso garrantzitsua da **osasun, higiene eta elikadura ohitura egokiak eskuratzeko**. Ohitura horiek lagungarriak dira bai norberaren gorputza eta eguneroko bizitzako espazioak zaintzeko, bai haurren etengabeko autonomia garatzeko.



2. arloa: Ingurunearen ezaguera

Errealitatea nola funtzionatzen duen jakiteko eta ulertzeko, haurrak ingurune **objektuen ezaugarriak** eta jokabideak ikertzen ditu: elementuekin jardun eta harremanak egiten ditu, sortzen dituzten sentsazioak hautematen ditu, aurrea hartzen die eragiten dituzten ondorioei, antzekotasun eta desberdintasunei antzematen die, elementuak alderatu, ordenatu eta kuantifikatzen ditu. Horrela, manipulatzetik irudikatzen igarotzen da; eta hori da, hain zuzen, trebetasun logiko-matematikoen hasiera.

Haurrek **natura ingurunearekin** eta haren osagaiekin dituzten bizipenetatik abiatuta, fenomeno naturalei erreparatuko diete, haien agerpen eta ondorioei, bai eta izaki bizidunei ere. Natura errespetatzeko eta zaintzeko jarrerak sustatzeko, oinarritzkoa da naturaren dibertsitatea aintzat hartzea eta ingurune horretako kideei erreparatzea eta haiekin lotzea.

Etapan honetan, haurrak **gizarte ingurunearen** kide direla jabetzen dira. Eskola bizitzako esperientziei esker, pertsonak ezagutu eta harremanak izango dituzte haiekin, loturak sortuko zaizkie eta zenbait jarrera garatuko dituzte; adibidez, konfiantza, empatia eta atxikimendua. Une horretan, garrantzitsua izango da norberaren bizipenak, emozioak eta sentimenduak adieraztea, identitatea eraikitze eta bizikidetzaren errazteko.

Kultura aniztasunaren ikuspuntutik, komenigarria da haurrak gizartearen usadio eta ohituretara hurbiltzea, ikuspegi ireki eta integratzaile batetik, gizartean dauden kulturen berri izan dezaten eta haiek errespetatzeko eta balioesteko jarrerak sor daitezen.

3. arloa: Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena

Hezkuntzaren alorrean komunikazioa landu nahi bada, mezuak hartzeko eta interpretatzeko gaitasunak sustatu behar dira. Gaitasun horiek lagungarriak dira mundua hobeto ulertzeko, eta adierazpen originala, irudimentsua eta sortzailea izateko.

Ahozko hizkuntzak jokabidea erregulatzen du, eta bizipenak, sentimenduak, ideiak, emozioak eta abar adierazten laguntzen du. Ikasleek hitzez adierazi behar dute, nahitaez, ikasten, pentsatzen eta sentitzen ari direna, norberaren identitatea eratzeko, ikasteko, egiten ikasteko eta izaten ikasteko.

Idazketa eta irakurketa modu funtzional eta esanguratsuan erabiliz gero, testu idatziaren zenbait propietate eta ohiko ezaugarri ikasten hasiko dira. Lehen Hezkuntzako lehen zikloan ezaugarri gehiago eskuratuko dituzte.

Atzerriko hizkuntza bat sartzeko jakin-mina pizten du. Arlo horretan, balioetsiko da ikasleak mezuen esanahietara pixkanaka hurbiltzea, komunikazio testuinguru ezagunetan.

Haur literaturara hurbiltzeko, testu ulergarriak eta errazak aukeratuko dira, eta literaturaren hastapen hori poz eta gozamen iturri, dibertsio eta jolas iturri izateko ahalegina egingo da.

Ikus-entzunezko hizkuntza eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak hezkuntzaren ikuspegitik erabili behar dira: tresna teknologikoak ezagutzetik abiatuta, haien erabilera egokia nabarmendu behar da.

Arte hizkuntzak plastika eta musika aipatzen ditu. Plastika hizkuntzak hauek hartzen ditu barne: batetik, materialak, testurak, objektuak eta tresnak erabiltzea, trebetasunak eskuratzeko; eta bestetik, plastika lanetara hurbiltzea, sentikortasun estetiko eta sormena pizteko. Musika hizkuntzak aukera ematen du kantuarekin, pertzepzioarekin, soinudun objektuak eta musika tresnak erabiltzearekin, gorputz mugimenduekin eta sormenarekin loturiko zenbait gaitasun garatzeko.

Gorputz hizkuntza oso lotuta dago gorputza erabiltzearekin, gorputzaren keinu, jarrera eta mugimenduekin, komunikatzeko eta adierazteko asmoarekin. Oso interesgarria da jolas sinbolikoa eta antzezpena erabiltzea, afektibitatea adierazteko eta munduaz dakitenaren berri emateko.